



**ABOKATUTZAREN EUSKAL
KONTSEILUAREN ADIERAZPENA,
DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI
BURUZKO DEKRETU
AUTONOMIKOAREN APLIKAZIOAK
ERAGINDAKO ARAZOEN
INGURUAN**

Eusko Jaurlaritzaren Doako Laguntza Juridikoari buruzko Dekreturen aplikazioak eragindako arazoak direla eta, Abokatutzaren Euskal Kontseiluak aparteko osoko bilkura egin du 2013ko apirilaren 22an. Bertan aztertu da nola geratu diren gure autonomia erkidegoko abokatuak dekretuaren aplikazioaren ondorioz. Bileraren ondorioak honako hauek izan dira:

- “Huts egindako kasuak” ez dira egon behar. Kontzeptu hori ez dugu egokitzen jotzen eta, beraz, halako kasuak desagertu behar dira.
- Administrazioaren aburuz, “huts egindako kasuak” sortzen dira honako bi gauza hauek bata bestearen ondoren gertatzen direnean: lehenik, behin-behineko izendapen baten ondorioz, abokatuak lan egin du edo zerbitzuak eman ditu herritar bat defendatzeko, hain zuzen ere, Estatuaren eginbeharra delako Konstituzioak ezarritako babes judicial eraginkorra eskaintzea; bigarrenik, betekizunak ez dira ematen edo eskabidea ez da egiten eta, ondorioz, doako justizia izateko eskubidea ez da aitortzen eta Administrazioak horren berri du.
- Horrenbestez, abokatuak ez dute ezer kobratzen egindako lanagatik. Baina ez da zentzuzkoa, esaterako, osasun sistema publikoko osagile bati hurrengo esatea: ez duzu ezer kobratuko; izan ere, larrialdian artatu duzun pertsona ez dago Gizarte Segurantzaren zerbitzuan sartuta eta, beraz, zuri dagokizu pertsona horri ordainsariak eskatzea, dirua izan zein ez izan.
- Gaur egun badira baliabide tekniko nahiko -adibidez, Foru Ogasunen datu fiskalen inguruan lan eginda- espedienteak arin izapidetzeko eta “huts egindako kasu” gehienak saihesteko.
- Are gehiago, “huts egindako kasuak” gertatuko balira -gutxi, gure ustez-, beharrezkotzat jotzen dugu Administrazioak halakoetan legelariei egindako lanagatik ordaintzea; izan ere, lan hori ordaindu beharko litzateke doako justiziaren sistemaren osagai bat balitz bezala. Horrek ez du kentzen Administrazioak doako justizia izateko eskubidea ez duen herritarri diru hori eskatzea. Administrazioak baditu tresnak hori egiteko, eta horrela egiten du isunen kasuan. Premiamendu bidea du horretarako.

**COMUNICADO DEL CONSEJO
VASCO DE LA ABOGACÍA
CON RELACIÓN A LA
PROBLEMÁTICA EXISTENTE
SOBRE LA APLICACIÓN DEL
DECRETO AUTÓNOMICO DE
ASISTENCIA JURÍDICA GRATUITA**

Ante la problemática actual existente en materia de Asistencia Jurídica Gratuita, derivada de la aplicación del Decreto de Asistencia Jurídica Gratuita del Gobierno Vasco, el Consejo Vasco de la Abogacía ha estimado conveniente celebrar un Pleno extraordinario el día 22 de abril de 2013, a fin de abordar la situación en que se encuentran los abogados y abogadas de nuestra Comunidad Autónoma como consecuencia de la vigencia de la antedicha norma, alcanzando las siguientes conclusiones:

- No debe haber asuntos “fallidos”. Ni concebimos el concepto como tal, ni deberían existir.
- La Administración entiende por tales el trabajo o prestación de servicios durante un periodo de tiempo que realiza un Abogado/Abogada en virtud de una designación provisional, defendiendo a un ciudadano/a por la obligación del Estado de dar cumplimiento al principio constitucional de tutela judicial efectiva, resultando que después de la realización del trabajo, la Administración conoce que no tiene derecho a la justicia gratuita, bien por no reunir los requisitos para ello o porque voluntariamente prescinde de solicitar dicho reconocimiento.
- La consecuencia es que el sistema establecido no paga al abogado/abogada el trabajo realizado. No tendría sentido decirle a un médico del sistema público de salud que no va a cobrar nada porque la persona a la que ha tenido que asistir urgentemente no está adscrita al sistema de la seguridad social, exigiéndole que sea él quien se encargue de perseguirle para tratar de cobrar, aunque sepa que realmente carece de recursos.
- Existen ya en este momento medios técnicos suficientes, por ejemplo, de colaboración con los datos fiscales de las Haciendas Forales, para tramitar los expedientes con celeridad y evitar la inmensa mayoría de estos posibles supuestos.
- Más aún, en los escasos “fallidos” que aun así se pudieran producir, es necesario el compromiso de la Administración de abonar a los letrados/as las actuaciones que hayan realizado o deban realizar por obligación legal, como gasto inherente al propio sistema de justicia gratuita, sin perjuicio de la facultad de la Administración de repetir contra el ciudadano/a no beneficiario/a de AJG. La Administración tiene medios para ello; ya lo

- Halako gaietan gastuak legelariokin elkarbanatzea onartezina da: abokatuek, ofiziozko txandan aritzen diren abokatuek edota abokatuen elkargoek ez dute ezer ordaindu behar; izan ere, zerbitzua ematen ari dira. Aurretik aipatu dugun adibidearekin jarraituz, benetan pentsaezina da Osakidetzako osagile bati edo medikuen elkargoari ebakuntza kirurgiko baten gastuak ordaintzeko eskatzea, zati batean bada ere, gaixoaren baliabide ekonomikoak aurretik ezagutu gabe.
- Ofiziozko txandaren likidazioak lehenbailehen ordaindu behar dira, 2012ko bigarren sei hilekoari dagokionez. Horretarako abokatuen elkargoek prestatutako agiriak erabiliko dira, aurretik hitzartutakoa errespetatuta. Ezin dira onartu murrizketa gehiago, arau berri baten interpretazioa aitzaki modura erabiltuta.
- Orientazio Juridikoko Zerbitzuari behar den moduko bitartekoak eman beharko zaizkio. Oraingo arauketa dela eta, gaiak eta izapideak ugaritu dira eta Orientazio Juridikoko Zerbitzuko onuradunei behar bezalako arreta eskaintzeko bitarteko nahiko egotea behar-beharrezkoa da.
- Atxilotuarekin dagoen legelariak laguntza eman behar dio dena delako atxilotuari. Horixe da bere eginbeharr nagusia. Hortaz, ezin dugu inolaz ere onartu abokatuak Dekretuak eskatzen dituen eranskinak bete behar izatea edota defendatuaren doako justizia izapidetu behar izatea, inprimaki gogaikarriak betez.
- 2008. urtetik aurrera gai hauetarako egon den dirua murriztu dute. Hala ere, atxilotuei emandako laguntzan eta ofiziozko txandan aritu diren abokatuak berdin-berdin saiatu dira. Oraingoan, Eusko Jaurlaritzaren jarrerak Abokatzaren Euskal Kontseilua muga gaindiezinak zehaztera bultzatu du. Hortaz, Abokatzaren Euskal Kontseiluak gutxieneko baldintzak ezarri ditu. Doako laguntza juridikoa ezin izango da hemendik aurrera eskaini -orain arte bezala, behintzat-, berdin jarraitzen badugu. Beraz, Eusko Jaurlaritzari eta Justizia Sailari irtenbide adiskidetsua topatzeko eskatzen diegu.
- Azkenik, Abokatzaren Euskal Kontseiluak Tasen Legearen aurka dagoela adierazi nahi du. Aurkakotasun hori erabatekoa da. Tasen legea maiz oztopo gaindiezina bihurtu da justiziara jotzeko, estatistika judizialek erakutsi dutenez. Beraz, argi eta garbi eskatzen dugu lege hori indargabetzeko. Tasa judizialak desagertu behar dira; ezin dira bidezkotu krisi egoeran murgilduta gaudenean, eta, are gutxiago, ekonomiaren egoerak okerrera egin duenean. Inkoherentzia larritzat jotzen dugu tasak jartzea. Eskubideen defentsa eta babesa oztopatzen du, besterik ez.

Bilbon, 2013ko apirilaren 23an.

hace cuando quiere cobrar multas. Cuenta con la vía de apremio.

- Resulta inaceptable la cofinanciación del pago de estos asuntos, ni por parte de los abogados y abogadas de oficio ni por parte de los Colegios de Abogados que son los que prestan el servicio. Siguiendo con el ejemplo anterior, sería tan peregrino como exigir a un médico de Osakidetza, o al Colegio de Médicos, que cofinancien una intervención quirúrgica que han tenido que realizar de urgencia, sin poder valorar previamente los recursos económicos del paciente.
- Se debe desbloquear urgentemente el abono íntegro de las liquidaciones del Turno de Oficio correspondientes al segundo semestre de 2012, conforme a las certificaciones inicialmente confeccionadas por los Colegios de Abogados, cumpliendo compromisos previamente adquiridos. No se entienden nuevos recortes al amparo de interesados cambios de criterios interpretativos de una norma recién aprobada.
- Se debe proporcionar a los Servicios de Orientación Jurídica los medios y condiciones adecuados para poder prestar satisfactoriamente la atención a los beneficiarios/as de AJG, dado el incremento de asuntos y tramitaciones derivado de la actual normativa.
- Resulta inaceptable trasladar al letrado/a que está asistiendo a un detenido/a, la obligación de cumplimentar todos los anexos exigidos en el Decreto y tramitar la justicia gratuita de su defendido/a, a base de formularios reiterativos, cuando lo que le corresponde es prestarle la asistencia necesaria en tal momento.
- Habiendo padecido sucesivos recortes desde 2008, sin producirse sin embargo merma alguna en el compromiso y continuo esfuerzo de los abogados/as en la prestación del servicio de la asistencia al detenido y Turno de Oficio, la posición que mantiene el Gobierno Vasco obliga al Consejo Vasco de la Abogacía a fijar las líneas rojas que definen sus peticiones irrenunciables y a anticipar la imposibilidad de continuar con la prestación de la Asistencia Jurídica Gratuita tal y como viene siendo prestada, caso de persistir la actual situación, cuya urgente resolución por una vía amistosa reclaman del Gobierno Vasco y de la Viceconsejería de Justicia.
- Por último, el Consejo Vasco de la Abogacía reitera su frontal oposición y rechazo a la llamada "Ley de Tasas", en cuanto supone un obstáculo insalvable en muchos casos al acceso a la justicia, tal y como están demostrando ya las estadísticas judiciales, solicitando una vez más su derogación. No deben existir tasas judiciales, por ningún concepto ni cuantía, menos aún en una época de crisis como la actual, peor incluso a aquella en la que se aprobó la eliminación de tasas que ofrecían importes menores. Es incoherente y solo tiene el objetivo de restringir el libre ejercicio de acciones en defensa y reclamación de derechos.

Bilbao, a 22 de abril de 2013.